

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua aurrera egin ahala eta arraskatsua zateko, bertan egingo diren ekintzak ondo pentsatzea eta zehaztea ezinbestekoa da. Ekintza hauek, adin guztietarako dira eta bertan baliabide desberdinak egingo dirak. Hauek, jendea elkarrekin komunikatu eta momentu lasai eta ona izateko helburuarekin pentsatuak daude, izan ere, hau da gure helburua.

Ekintza hauek 5 asteka antolatuta daude, hau da, 5 asteko ekintzak prestatzen ditugu eta hauek bukatzerakoan berriz hasten da prozesua. Zein astetan gauden aste bakoitzean jakin ahal izateko, lokalean 1,2,3,4 eta 5 zenbakiekin adieraziko ditugu eta jendeak hondoan aurkituko den egutegian ikusi ahal izango ditu zein ekintza dauden aste horretan.

Hasteko, gure lokalean honako ekintza hauek aurkitzeko aukera egongo da:

- **Kontzertuak:** Bi astean behin kontzertu desberdinak izango ditugu, hauei buruz jakin beharreko guztia sare sozialen bidez esaten joango gara aurreko bi asteetan zehar. Gainera, lokalean bertan kartelak jarriko ditugu eta bertan ere informazio guztia agertuko da.




- **Karaokea:** hau ere 5 astean 2 aldiz egiteko aukera egongo da. Kontzertuen gela berdinean karaoke bat montatuko dugu.

- **Pintxura tailerra:** 4 aldiz egiteko aukera egongo da, uste dugu, metodo ona dela jendeak barruan duena kanpora ateratzeko eta sentitzen duenarekin marrazki bat egiteko. Gainera, ekintza honetan gitariko batek edo batzuk ere parte hartuko dute. Guk lokalean, akuarelak, margoak, koadroak eta beste hainbat material izango ditugu hau aurrera eraman ahal izateko, beraiek ez dira ezertaz arduratu behar, baina norbaitek bere materiala ekarri nahi badu edozein arrazoiengatik ongiatorria izango da.





- **Buztinezko tailerra:** 3 aldiz egiteko tailerra da hau. Bertan buztinarekin beraiek nahi duten gauzak asmatu dezakete, adibidez, tazak, ontziak... Gainera, hauek margotzeko aukera ere izango dute, behin lehortzen direnean.



- **Yoga:** erlaxatzeko oso baliabide ona dela uste dugu, musika lasaia jarriz ariketa fisikoa egiteko aukera bat iruditzen zaigu eta gainera mmentu lasaia izan nahi duenarentzat oso egokia ikusten dugu. Hau ere 3 aldiz egiteko aukera egongo da.



- **Mus txapelketa:** lokalean bertan kartak egongo dira edozeinek jolastu ahal izateko, jende asko ibili ezker eta nahi ezker, 5 astean behin txapelketa bat egitea ideia ona iruditzen zaigu jendeak parte hartu ahal izateko.

- **Hitzaldiak:** gai desberdinei buruz hitz egiteko hitzaldiak antolatuko ditugu, hauek entzuteko aukera 5 astean bi aldiz egongo da eta zeri buruz den eta nork hitz egingo duen sare sozialen bidez eta lokalean bertan jarriko ditugun kartelen bidez jakin ahal izango da.

Esan bezala, ekintza hauek egutegi batean agertuko dira, sare sozialetan zein lokalean beran aurkitu ahal izango direnak eta bertan aste bakoitzean zein ekintza egongo den ikusi ahal izango da. Gustatu ezker, hilan ordaintzen ez dutenak eta ekintza egin nahi duenak guri esateko

aukera izango du bertako bati hitz eginez eta horrela ekintza horretan parte hartzeko aukera izango du.

Antolatutako ekintzez gain, bertan egunerokotasunean beste hainbat ekintza egiteko aukera dago. Lokalean bertan liburutegi bat izango dugu, jendeak behar ez dituen liburuekin edo donazioak eginda emandako liburuekin eta bertan dauden sofa edo besaulki desberdinetan egoteko aukera izango dute, momentu lasai bat sortuz. Gainera, lokalean bertan, laguntza behar dutein zein eskeintzen dituzten animaliak ere egongo dira, zehazki katu batzuk. Gu, etxea behar duten animalien elkarteekin kontaktuan jarriko gara eta gure lokalean egoteko egokituta dauden animaliak izango ditugu, izan ere, animaliak oso lagungarriak izaten dira edozein arazoren aurrean eta badago jendea nahiago duena animaliekin egon edo animalien laguntza pertsonena baino, beraz horretarako aukera ere eskeiniko dugu. Gainera, animalia hauek etxe bat behar dutenez, hau emateko aukera ere egongo da beti ere guk eskatutako informazio, papel eta neurri guztiak betetzen badira eta guri animalia horri behar duen bizitza emango diola iruditzen bazaigu. Beraz, hauekin lotutako ekintzak ere badaude eta gainera, guztiak ados egon ezkerro, lokal osoan zehar ibili daitezke animalia hauek, nahiz eta beraien gela izango duten.

ORDUTEGIA							
	AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
1		BUZ		YOGA	PINT	KON.	
2	PINT			HITZ		KA	
3	YOGA		BUZ		PINT	KON	
4		HITZ			MUS		
5	BUZ	YOGA		KA		PINT	

- KONTZERTUA
- BUZTINA
- PINTXURA TAILERRA
- KARAOKE
- HITZALDIA
- MUS TXAPELKETA
- YOGA

- 5 asteko ekintza guztiak (Buztina, Pintxura, Kontzertuak, Hitzaldiak) : 30€
- Indibidualki: 5€



Kontzertua

MONOï Kafetegia

Karaoke



MONOÏ KAFETEGIA

MONOÏ KAFETEGIA

pintxura tailerra

MONOÏ KAFETEGIA



MONOÏ KAFETEGIA

Mus



tzapelketa

ASANA YOGA KURSE



MONOÏ KAFETEGIA